

Itsasoa, antropologia soziokulturalaren ikuspegitik

Pio Perez Aldasoro
Antropologia ikaslea

Artikulu honetan arrantza edo itsastar antropologiaren zenbait interesgune azpimarratu nahi dugu. Hori dela eta, ikasketa-alor berri honen historia laburra azaldu ondoren euskal antropologiari interesgarri suerta dakizkiokeen langaiak ditugu, honela ikerketa eremu zabala eskainiz: Euskal Herriari buruz antropologoengandik jaso dugun ikuspuntua, arrantzan gertatzen diren kapitalismo-motak, itsasoa eta lana, etab.

In this article we want to underline some interesting points about fishing anthropology. After summarizing the short history of this discipline, some interesting working subjects for Basque anthropology are also pointed out: the anthropologist's view of Basque People, the sea and work, different types of capitalism in fishing, etc.

1. Sarrera

Arrantza, ekonomikoki emankorra den giza iharduera izanik, eta honekin batera arrantzaleak, iharduera honen aktore sozialak diren aldetik, oso interesgarriak suertatzen dira ikerketa antropologikorako.

Urruti utzi dugun beste sasoi batean, lurralde honetako biztanleek ehiztariak eta fruitu-biltzaileak izateaz gain arrantzan ere iharduten zuten; honen lekukoak dira, adibidez, historiaurreko kobazuloetan aurkitu diren arrain-hezur, arpoi eta muskuiluen arrastoak. Beste adibide bat Altxerri eta Ekain kobazuloak izango genituzke, zeinetan gure lurraldetako zaldi eta abereen irudiekin batera arrain-irudiak (izokinak eta erro-dabailoak) baititugu ikusgai (Barandiaran 1978: 38).

Bestalde, arrantzak dituen berezko izaerak eta bitxitasunak zenbait pertsona teknika bikain eta landua lortzera bultzatu dute, ondorioz, bizimodu berezia garatzera behartuz. Iharduera honen gibelean marrazten den giza erretratuak hankaz gora jar dezake euskaldunak deskribatzeko erabili izan den zenbait topiko, besteak beste, Euskal Herriaren nekazari-erretratu, bere baitan hertsia egon den herri batena, beste herrialdeekin harreman gabeko Euskal Herria eta antzekoak. Iharduera honen azterketarekin batera beharrezko lirateke euskaldunen estereotipoa berrikustea eta berrikertzea.

2. Gaiaren egungo egoera eta aitzindariak

Euskal Herriko antropologi literaturan ez dira ugariak itsastar edo arrantza-antropologiari buruz egin diren monografiak. Daudenen artean oso zaila da arrantza globalki, arlo tekniko eta sozialean, aztertu duen monografiarik aurkitzea. Salbuespena izango litzateke, puntu honetan, F. Barandiaran Irizarrek egindako monografia: *La comunidad de pescadores de bajura de Pasajes de San Juan. Ayer y hoy* (Barandiaran 1982). Honetaz gain, euskal antropologian arrantzari buruzko ikerlanak bi taldetan sailkatuko genituzke (Rubio 1994: 23).

a) Azterketa soziologikotik abiatzen diren monografiak: 20.eko eta 30.eko hamarkadetan egin ziren; besteak beste, F. Angulo, A. Saralegi, S. Gómez Izaguirre eta J. Tellaecheren lanak ditugu. Hauen ezaugarri nagusia arrantzaren teknologia berriaren azterketan datza.

b) Geroago historia sozialetik abiatuko diren ikerlanak ditugu. Besteak beste, A. Arrinda, J.M. Ugartechea, M. Ciriqian-Gaiztarro edo Julio Caro Barojarenak.

Euskal antropologia itsastarrari buruz esandakoa antropologia unibertsalera zabal genezake, hau da, ez direla ugariak izan arrantzari buruzko monografiak eta askoz gutxiago nekazari-giroko monografiekin alderatzen baditugu. Monografia hauen artean Bretón-ek (Bretón 1981) hiru aldi bereizten dituen sailkapena proposatzen digu:

Lehenengo momentua, 40.eko hamarkadaren amaiera aldean garatzen da, zenbait antropologo amerikarren esku. Monografia hauetan ikus daiteke arrantzale-

-komunitateek erabilitako tekniken erreferentzia deskriptiboa. Autore hauen artean esanguratsuenak Boas, Kroeber, Wisler, eta abar dira. Garai honetan britainiar antropologo funtzionalisten esku, zehazki Malinowski eta Firth, arrantza-ihardueraren azterketa orokorragoa eta, bide batez, gizartearekin erlazionatuagoa iristen zaigu. Hala ere, funtzionalisten monografia hauetan arrantzak duen garrantzia urria da eta ez du ikerketa-eremu honetan sakontzen.

Bigarren momentuan 50. eta 60.eko hamarkadak ditugu. Garai hauetan azpimarratzekoak lirateke J.A. Barnes, O. Blehr eta F. Barth, antropologian eredu teoriko berriak eraikitzen saiatu baitziren. Autore hauez gain, munduko beste lurralde batzuetako arrantzaleei buruzko monografiak ere burutzen dira. Bestek beste, Dovenport eta Comitas Jamaikan, Norbeck eta Frazer Asian, Kottack Brasilen eta Orona Venezuelan.

Antropologia itsastiarren hirugarren momentua, eta emankorrena, 60.eko hamarkadatik aurrerakoa izango da. Orduan sortuko dira ikertze-arlo honen bidea gidatuko duten artikulua-bilduma sakonak. Garai honetako autore garrantzitsuenen artean Raoul & Wadel, Cato, Fricke eta Smith aipatuko genituzke. Estatu espainolean Galván (1988) aipatu behar da, zeinak gaztelarazko lehenengo antropologi itsastarraren ikerlana argitaratuko baitu: *Antropología de la pesca, problemas, conceptos y teorías*. Honetaz gain, antropologia itsastarra beste arloetatik hartutako eskemak jarraitzeaz gain arlo teorikoan ekarri esanguratsuak egitera iritsi da. Esanguratsuenetariko bat Forman eta McCay-ren lanetatik abiatuz burutu izan den ekologia prozesuari buruzko lanak dira.

3. Ikerketaren objektuaren definizioa

3.1. Arrantza

Arrantza giza talde batek itsasoko baliabide naturalez burutzen dituen ustiaketa eta erabileratik sortzen da. Iharduera hau, aldagai anitz izan arren, ekonomikoa da, honetan aritzen den populazio-sektoreen ikuspuntutik.

Lehenik eta behin, arrantza-iharduerak gizakiak itsasoko baliabide naturalak erauz eta aprobeitza ditzen burutuko dituen ekintza-mota guztiak hartzen ditu. Baliabide horien berezko dinamika dela eta, iharduera honen eraginkortasuna bi faktoreen uztarketaren emaitza aleatorioan datza: baliabide hauen ugaritasun eta eskuragarritasuna alde batetik, eta gizakiak harrapaketa burutuko duen arrantza-ahalegina, bestetik.

3.2. Arrantza-motak

Euskal Herrian erabiltzen diren arrantza-motak arrantzaleek bere bizitzan zehar barneraturiko ezagupen-multzoa praktikan jartzerakoan garatu dira. Arrantza-motak osatutako elementu ugariak ingurugiroari eta baliabideen ezaugarriei egokitu zaizkie.

Arrantza-iharduera harrapakinen arabera sailkatzen badugu bi arrantza-multzo aurkituko dugu: azaleko arrantza eta itsas hondarreko arrantza. Lehenengoak itsas azalean bizi diren izaki pelagikoen inguruan aritzen den arrantza-industria multzoa kontutan hartzen du, hain zuzen ere. Bigarrena, aitzitik, gune bentonikoetan, hau da, kontinente-plataformatik hurbil bizi diren izakien inguruan oinarritzen da.

Desberdintasun hauek honako ezaugarri hauetan zehazten dira:

a) Izaki pelagikoez aniztasun eta barietate handiagoa dute, bai eta mobilitate handiagoa ere; hau da, espezie migratzaileak dira. Harrapakin hauen artean, besteak beste, antxoak, sardinak, hegaluzeak, txitxarroak, eta abar ditugu, zeinak inguraketa-sareaz edota kanaberaz, artisau-lanabesez, harrapatzen diren. Arrantza-mota honetan arrainuntzi tradizional edota bajurakoak aritu izan dira.

b) Gune bentonikoetan bizi diren harrapakinak ez dira migratzaileak eta, besteak beste, legatza, bixigua, lupina, barbarina eta bakailaoa ditugu ohizkoenak. Arrantza-mota honetan itsas hondarreko sareak erabiltzen dira, zeinak atoian eramaten diren. Gehienetan arrantza-mota hau arrantza industrialaren sinonimotzat jo izan da.

Nolanahi ere, arestian aipatutako sailkapena izakien izaeran oinarrituta badago ere, gure lanean Pasaian arrantzaleen artean erabiltzen den EMIC perspektiba (Harris 1981) hartuko dugu kontuan. Hori dela eta, iharduera hau garatzen den uretako hurbiltasun eta urruntasunaren araberrako sailkapena harturik, hiru multzotan sailkatuko ditugu arrantza-motak:

a) Bajurako arrantza: arrantza-mota hau itsas azaleko arrantzarekin bat dator. Itsasertetik distantzia txikira, Bizkaiko itsasoan egiten den arrantza da, bakanka Arkatxoneko latitudea (Frantzia) gaindituz. Mende honetako lehenengo erdialdera bajurako arrantza harrapaketaen aleatorietatean oinarritzen zen. Gaur egun, ordea, arrainuntziek dituzten baliabide teknikoek esker harrapakinen aurkitze edota arrain-sarden detekzio-lanak zehaztu eta erraztu egiten dira. Arrantza-mota honetan bi kanpaina dira nagusi: antxoarena eta hegaluzearena. Antxoaren kanpainan arrantzaleak arrainuntzietan irteten dira, egunero, arratsaldeko azken orduetan, goizaldean porturatzeke, bere lanen emaitza bertan saltzeko asmoz. Hegaluzearen kanpainan, bestalde, arrainuntziek 7 eta 15 egun bitarteko marealdiak egin ditzakete. Itsasoan igarotako egunen kopurua beita-kantitate edota harrapaketaen arabera dago.

b) Alturako arrantza: tradizionalki arrantza-mota hau Erresuma Batuko hegoaldean eta Frantziaren mendebaldean egiten da, Gran Sol delakoan eta Irlandako Box-en.

Gaur, arrantza-mota honetan arrastre edo palangre-tresnak erabiltzen dira. Halaber, azpimultzo honetan Kanariar-Sahariar aldean aritzen diren arrainun-tziak sartzen dira. Arrantza honetan diharduten arrainuntziek, itsasoan 10-12 egun bitarteko egonaldiak egiten dituzte.

c) Altura handiko arrantza: Atlantikoaren iparraldean egiten da arrantza-mota hau, Labrador penintsulan (Ternuan) hain zuzen ere eta Norvegiako itsasoan. Bere harrapaketa gehiengoa bakailoa da, nahiz eta azken urteotan beste espezie-mota batzuk ere harrapatu, adibidez halibut beltza.

Pasaiaiko portuan 1920 aldera agertu zen arrantza-mota hau, PYSBE elkarte sortu zenean. Elkarre honek arrantza industrialerako bideari ekin zion, arrainuntzi modernoak eta teknologia berria aplikatuz.

Arrantza-mota honetan aritzen diren arrantzaleek 4 eta 6 hilabete bitarteko egonaldiak egin ditzakete itsasoan, eta Kanadako Nervegiako itsasertzeko portuetan gutxitan sartzen dira.

3.3. Arrantzaren izaera zinegetikoa nabarmendu nahian

Antropologiaren testu klasiko askotan arrantzaren ezaugarri zinegetikoa nabarmendu da, arrantzaleek arrainen (harrapakinak) atzetik ibili behar dutela azpimarratuz; behin arrain-sarda aurkitu ondoren, teknika eraginkorrez (amuaz, arpoiaz, sareaz, e.a.) edota teknika geldoz (nasak, palangreak, e.a.) egiten dela arrantza esan da.

Honetaz gain, eta ezaugarri zinegetikoa nabarmendu nahian, arrainen gaineko kontrolaz ihardun da; jakina denez, arrantzaleek arrainengan ia ez dute kontrolik. Alde batetik arrantza-iharduera burutzen den inguruak inolako domestikaziorik agertzen ez duelako, eta ondorioz, arrantzaleek egin dezaketen apurra beren harrapaketa mugatzea delako, itsasguneen zorikotasuna oso altua izanik, hain zuzen ere. Nolanahi ere, ehiza-mota hau itsasoan burutzen da, gizakiarena ez den ingurune batean, zeinean biziraupena oso zaila izan baitaiteke eta non lanabes berezi batzuk (arrainuntziak eta arrantza-tresnak) ia ezinbestekoak suertatzen diren. Era berean, itsasoan harrapakinaren behaketa soila ezinezkoa suertatzen da eta, hau horrela izanik, harrapakinaren aurkitzeko lanak arazo iraunkor bihurtzen dira (Andersen eta Wadel 1972: 153).

Haatik, arrantzaleek gerora, belaunaldiz belaunaldi, zenbait bitarteko intelektual garatu dute, batez ere, ingurugiroari eta harrapakinei buruzkoak. Ezagupen hauei esker itsaso zabalean jar ditzakete euren arrainuntziak eta neurri berean itsasguneen eta itsas espezien portaera aurremugatu dezakete. Halaber, berezko hautemate eta trebezia aparta garatu behar izan dituzte eguneroko lan-tresnez itsasoan lan egiteko.

Arrantzaren izaera zinegetikoari jarraituz, baliabidearen izaera komuna izan da aipatu den beste ezaugarria. Itsasoan, lehorrean gertatu ez den bezala, oso zaila suertatu da mugak ipintzea edota jabetza pribatuaren eskubideak erabiltzea. Dena dela, gaur egun indarrean dirauen 200 milien dekretuak lurralde eta nazio askotako arrantza babesten du, lurralde horretakoak ez diren arrainuntzietatik, alegia. Baina arrain-sarden mugikortasuna dela eta, baliabide komunaren izaera indarrean mantentzen da, zeren arrain-sarden mugikortasunari esker nazio bateko nahiz besteko arrantzaleak saiatzen dira harrapatzen.

Arrantzaleak ehiztarien estereotipotik bereizi nahi direnean, teknologi erabilpen masiboa dela eta, edota arrantza industrialeko entrepresa handietan lan egitearren, "gaurko ehiztariak" terminoa erabiltzen da hura definitzeko. Honela bada, arrantzaleek gero eta kontrol zorrotzagoa izaten dute entrepresa edota agintarien aldetik (Smith 1977: 17), nahiz eta arrantzari buruzko erabaki asko arrainuntzietatik bertatik aurrera eraman. Alturako arrantza modernoan ekipo teknikoak edota beharrezkoa den lan-antolakuntza oso konplexuak izaten dira, izan ere, kapital-inbertsio handiak eta prozesatuaren era industrialak eskatzen baitituzte. Zentzu honetan, Andersen eta Wadel antropologoek hitzetan, (Andersen & Wadel 1972: 154) arrantza industrialahiza industrialahiza da, zeinean arrantzaleak ehiztari libre eta buruonesle ereduetatik gero eta gehiago aldetzen diren.

Hauek dira arrantzaleak eta ehiztarien arteko parekidetasuna azpimarratzeko erabiltzen diren zenbait ezaugarri, arrantzaleak eboluzio taxonomietan koka daitezkeen saiakera. Zentzu honetan, Morganek (Morgan 1975) bere sailkapenean planteiatzen zuenez, basatasunaren ertaldia karakterizatzen zen sua eta arrantzaren aurkikuntzaz, lehorreko animalien ehiza, aldiz, basatasunaren azken aldian kokatzen zuten bitartean. Marx eta Engelsek hein handi batean Morganen teoriak erabili zituzten. Era berean, XIX. mendeko teoria eboluzionista defendatzen zuten zenbait autoreren ustez arrantza giza historiaren aldi banandua eta goiztiarra zen (Palsson 1989: 3). XX. mendean zehar, zenbait autorek gizateriaren eboluzioan arrantzak izandako papera azpimarratu dute, nekazariaren sorreran izan zuten garrantzia ere ahaztu gabe (Sauer 1952).

Arrantza ihardueran ustiatzen diren baliabideak eta erabiltzen diren teknikak nahiz eta ehizan erabilitakoen parekoak izan, badira beste faktore batzuk kontuan hartu beharrekoak. Hau horrela izanik, arrantzaren produkzio antolaketa bi alderdi ezberdin islatzen ditu. Alde batetik, ehiztarien ekologia eta teknikak; baina bestalde, iharduera txertatzen den gizartearen dinamika eta egitura. Honela izanik ere, arrantza ihardueraren inguruan sortzen eta garatzen diren giza harremanak ehiztari talde, tribu, nekazari edota langile industrialen ezaugarrien parekoak izan daitezke.

3.5. Arrantza eta kapitalismoa

Arrantzale eta nekazarien arteko parekotasunari garrantzia ematen dioten autore batzuk baditugu, eta hauek arrantzaren zenbait ezaugarri berezi aipatzen dituzte. Esaterako, arrantzan gertatzen den kapitalismo-mota. Baliabidea ustiatuz zenbait natur elementu menpean maneiatzen dituen ekonomia erauzleaz, kapitalismoak saihestu ezineko zailtasun batzuk ditu. Laburbilduz, iharduera honetan kapitalismoa ez da garatzen industrian garatzen den azkartasunaz (Bretón & López Estrada 1989: 62).

Aurreko autoreek planteiatzen duten beste ezaugarri bat itsasoaz lan-objektu gisa jabetzeko dagoen zailtasuna da. Hauek planteiatzen duten legez, ez da aise suertatzen itsasorako sarbidea alokatzea edota errentapeko espropiatzea: arraina produkzio bide gisa ez dago kontrolatzerik: «Baliabidearen mugikortasunak jabe-goa inhibitu egiten du» (Faris 1977: 240).

Iharduera honetan, jabetza pribatua produkzio-bideetara mugatzen da, hots, arrainuntzia eta bertan erabiltzen diren lanabesak. Ustiaketaren objektua, hots, itsasoa, ezin da jabetza pribatua kontsideratu. Arrantzalea baliabideak untziratzeko asmoz irtengo da, baina ez du inoiz itsasoa hartuko onura pribatua izango balitz bezala. Hala eta guztiz ere, lehenengo sektore ekonomiko honetako beste iharduera-motan, nekazaritzan, adibidez, lan-objektua (lurra) ondasun pribatua edota komunitate jabetza izango da, eta horrela lege-sistema zehatzen araupean egongo da.

Nolanahi ere, arrantzaleen proletarizazioak beste berezitasun eta ezaugarri batzuk ekartzen ditu. Proletarioak, Marxek zioen bezala, produkzio bideak ez edukitzeak karakterizatzen ditu, eta lurretik banandutako nekazariengandik, euren eskubideak desjabetuz jaiotzen dira. Itsas langileei dagokienez, historian zehar, zailagoa suertatu da itsasoaz desjabetzea. Itsasoaz desjabetzeaz baino errazago izan da, baldintza batzuen menpean, jakina, baliabideen erauzketa-lanen ardua arrantzaleari uztea eta harrapaketa-merkaturaketa eta geroko monopolizazioa kapitalaren esku mantentzea (Durrenberg & Palsson 1985: 144). Hala eta guztiz ere, arrainuntzi oso kapitalizatuen presentziak, bitarteko tekniko sofistikatuz, proletarizatu dezake arrantzalea, ezen era honetako arrainuntziak tripulazio handia behar baitu, unitate produktibo txikiak desagertaraziz.

Modu berean, alde batetik kapitalaren sarrera progresiboak eta bestalde gero eta arrainuntzi handiagoen eraikuntzak, unitate produktiboen batzea ekarri dute. Honek duen eragina tripulazioaren osaketan ikus daiteke, non ahaidetasunak arrantza tradizionalen duen garrantzia galtzen baitu eta, ondorioz, produkzio-bideen kontrolak ihes egiten du arrantzaleen eskuetatik.

Hala ere, proletarizazio hau ez da beti erabatekoa izan, arrainuntzi industrial hauetan aritzen diren arrantzaleek ontzi txikien jabetza mantentzeko, eta jabetza honek lan autonomoa bermatu baitezake. Itsasora irtetea galarazteko dau-den zailtasunak itsasoko lanera itzultzeko aukera ematen du, ekoizle independente gisa. Krisi-sasoietan, tradizionalki, arrantza izan da biziraupenerako beste biderik aurkitzen ez zuen populazioaren babesa (Löfgren 1979).

Dena den, arrantzak beste sektore ekonomikoetan agertzen ez diren lan-erak eta produkzio-erlazio motak agertzen ditu, zeinak aipatu beharreko arazoak planteiatzen dituen. Arazo hauek honako lau sailetan koka ditzakegu, laburbilduz:

- 1) Itsasoaren eta lan-prozesuaren ezagutzak duen garrantzia.
- 2) Erakunde sozioekonomiko eta gremialetatik zuzenduriko produkzio-erlazioak (kofradiak).
- 3) Ordain-sarien sistema bereziak.
- 4) Natur baliabideen eta iharduera garatzen den ingurunearen berezitasuna.

4. Itsasoaren eta lan-prozesuaren ezagutzak duen garrantzia

Eskuarki, profesioduna izateak lanbide zehatz batean behar den trebetasuna eta beste zenbait gaitasun izatea dakar. Beraz, horrek lanbide horretarako gaitasuna emango dio langileari, eta merkatuko dinamikan sartu ahal izateko aukera eskainiko dio. Honez gain, profesioduna izateak maila bat edo besteko koordinazioa duen profesional-talde batekin lotuko du.

4.1. Itsasoa eta lana

Lana gizakiak bere bizitzan zehar buruturiko iharduera inportanteenetakoa da. Lanbidea, alde batetik, talde sozialaren iraupena bermatuko duen ondasun eta zerbitzu ekoizpenerako burutzen diren giza ihardueren multzoa bailitz ulertu behar dugu. Bestalde, lana unibertsala bezala agertzen zaigu, ezen lanaren baitan egitura sozio-kulturalak eta euren oinarri materialak zein eideitikoak ekoiztu eta birsortu dira. Ondorioz, lana unibertsalizatu egiten da, ez merkatuko balioa izango balitz bezala bakarrik, baizik eta giza balore bihurtuz (Baudrillard 1980: 23). Hori dela eta, orduan erreferente esanguratsu bihurtuko da gure bizitzan.

Bizi-esperientzia suposatzen duen lanak kontzeptualizazio-zailtasunak ditu. Kontzeptu honen baitan sartzen diren alderdiak hain zabalak dira (arloteknikoan, zein moral, zein motibatzaile, zein joerazkoan), ezen espazio eta denboran zehar kontzeptualizazioa mugatzea zaila gertatzen baita. Hau da, lanari emango diogun esanahi edo inplikazioa hamaika faktoreren menpe dagoenez, konfigurazio ezberdinak lortuko ditu kontzeptuak.

Kontzeptua zentratu eta mugatzeko dauden zailtasunez gain, lan-iharduerari gehitu behar zaizkio historian zehar baldintza sozio-historiko, nahiz politiko, nahiz ekonomikoek bere esanahian eragin dituzten aldaketak (Marín Benet: 613). Gaur egun, lanaren kontzeptuak ez du zer ikusirik beste garai batzuetan zuen kontzeptzioarekin, eta gainera ez da bera kultura guztiek gai honi buruz duten kontzeptzioa (Schwimner: 569).

Dena den, guk honetan erabiliko dugun lanaren definiziora hurbil gaitezen (Salanova et al. 1993: 25). Hiru hausnarketa puntu ekarri nahi ditugu:

a) Lehenik eta behin, lanean bertan eta lanarekin erlazionaturiko ihardueretan pertsonak egiten duen ahalegin eta denboraren inbertsioa.

b) Bigarrenik, behar ekonomiko, nahiz sozial, nahiz psikologikoak asetzeko lanak duen garrantzia.

c) Hirugarrenik eta azkenik, lan-eskubideen marko legal nahiz sozialak izan duen bilakaera eta honek eguneroko bizitzan izan duen garrantzia.

Lana, bestalde, zenbait produkzio-faktoreen konbinazioa izango da, besteak beste, baliabideak, lanabesak eta lan-indarra. Produkzio-faktore hauen konbinazioaren bidez erabilera-balioa nahiz truke-balioa izanik (Schwimner 1980: 50) produkzio-ondasuna lortuko dugu. Itsasoko lanari aplikatutako konbinazio honek berezitasun garrantzitsuak ditu.

Alde batetik, ikus dezakegunez, arrantza itsas ingurunean garatzen da, ingurune natural arriskutsuan (Sánchez Fernández 1993: 498), hots, gizakia-rena ez den ingurune batean. Gainera, arrantza-iharduera itsasoan barne garatzen da eta arrain-lekuak gure begiek ezin dituzte ikusi; ez badugu teknologia berezirik, itsas hondoa ikustezina suertatzen da. Askotan itsasoan harrapakinaren behaketa soila ezinezkoa da eta arrain-sarden aurkitzea, ondorioz, arazo etengabea da (Andersen & Wadel 1972: 153).

Jakina denez, teknika modernoak (radarra, sonarra...) ez zituzten arrantzaleentzat, itsas ingurune gehiena ikustezina zen eta ezagutzeko zuten modu bakarra arrantza-iharduera bera zen. Hori dela eta, praktika dela medio lortzen du arrantzaleak diharduen itsas eremuari buruzko ezagutza.

Denbora eta praktikaren poderioz arrantzaleek ezagupen bitarteko batzuk lortu dituzte, zeinak arrantzaleari itsasoan bere burua aurkitzeko eta itsas izakien eta ingurunearen portaera aurrikusteko aukera ematen baitio. Modu berean, pertzepzio-ahaldmen garrantzitsuak garatu ditu, baita itsasoan egunero erabiltzen dituen lanabesekin aritzeko trebetasun aparta ere, horretarako arte berezia beharrezkoa izanik. Artea garatzeak ez du esan nahi itsasoari buruzko gutxi gora-beherako ezagupen multzo bat edukitzea bakarrik, teknologia kulturean deitutako "savoir faire" baizik (Galván 1988: 13).

Arrantzaleak behar duen ikasketa lana luzea da, eta beharrezko duen esperimentazioak arrantzaleari itsas eremu zehatz batez baliatzeko zenbait eskubide ematen dizkio. Itsasoaz jabetzea materialki ezinezkoa bada, arrantza-ihardueraz eta beharrezko duen ezagupenaz baliatuko da giza taldea erabilera-eskubidez itsasoa ustiatzeko.

Ustiaketaren objektua, hots, itsasoa, ezin da jabego pribatuaren barnean kontsideratu. Arrantzalea baliabideak, arrainak, untziratzeko asmotan itsasoratuko da, baina ez du inoiz itsasoa hartuko onura pribatua izango balitz bezala. Beste sektore ekonomikoetan, nekazaritzan kasu, lan-objektua (lurra) jabego pribatua edo talde-komunitatearen jabegoa kontsideratuko da, eta hau honela lege-sistema baten araupean egongo da.

Erabiltzeko eskubide hauez baliatzeak arrantza-teknika zehatza ekartzen du. Alde horretatik, arrantzak teknika partikular bati (untzi-mota, artea, e.a) elkartua dagoen iharduera izendatzen du. Nolanahi ere, arrantza ziurtasunik gabeko eta zorizko iharduera da eta badakigu iharduera honetan elementu teknikoak garrantzi handikoak direla. Arrantzaleak elementu tekniko hauek menpera ditzake, baina ez arrantzaren oinarritzko elementua, arrainak, baliabideak. Arrantza garatzen den inguneak ez du domestikazio gradurik agertzen, eta beraz ingurunearen aleatorietatearen gaineko menpekotasuna oso handia da (Galván 1988: 12). Ezintasun honek ingurune fisikoaren menpekotasunera behartuko du arrantzalea.

Izakien biologiari buruzko ezagutzak lanaren iraupena, mareak eta kanpainak neurtuko ditu, hau da, izaki konkretu bat harrapatzeko zein den sasoi egokiena.

“Savoir faire” honetaz gain, teknologia izango da produkzioa areagotzeko tresna bakarra. Arrantza-ihardueran egokitze- eta hobekuntza-prozesua etengabe gertatuko da, eta beraz egokitu beharrak eta produkzioa areagotzeko beharrak berrikuntza teknologikoa berekin dakarte.

Bibliografia

- Andersen, R. & Wadel, C. (1972): *North Atlantic fishermen: Anthropological essays on modern fishing*, I.S.E.R. Memorial Univ. Of Newfoundland, Newfoundland.
- Barandiaran, J.M. (1978): *Itxaskaria. Los Vascos y el mar*, Petronor, Bilbo.
- Barandiaran Irizar, F. (1982): *La comunidad de pescadores de bajura de Pasajes San Juan. Estudio antropológico. Ayer y hoy*, Oiartzun.
- Baudrillard, J. (1980): *El espejo de la producción o la ilusión crítica del materialismo histórico*, Gedisa, Bartzelona.
- , (1973): *Le miroir de la production*, Casterman, Paris.
- Bretón, Y. (1981): “L’anthropologie et les sociétés de pêcheurs: Reflexions sur le naissance d’un sous-champ disciplinaire”, *Anthropologie et sociétés*, 5 (1), 7-27.
- Bretón, Y. & López Estrada, E. (1989): *Ciencias sociales y desarrollo de las pesquerías: Modelos y métodos aplicados al caso de México*, Instituto Nacional de Antropología e Historia, México.
- Durrenberger, E. & Palsson, G. (1985): “Peasants, entrepreneurs and companies: The evolution of iceland fishermen”, *Ethnos* 50, 103-122.
- Faris, J. (1977): “Primitive accumulation in small-scale fishing communities”, in Smith 1977, 235-249.
- Galván Tudela, A. (1988): “La antropología de la pesca: Problemas, teorías y conceptos”, *Revista Canaria de Filosofía y Ciencia Social*, 2, 11-33.
- Harris, M. (1981): *Introducción a la antropología general*, Alianza editorial, Madril.
- Löfgren, O. (1979): “Marine ecotypes in preindustrial Sweden: A comparative discussion of Swedish peasant fishermen” in Andersen, R., *North Atlantic maritime cultures: Anthropological essays on changing adaptations*, Mouton The Hage, 83-109.
- Marín Benet, M. R. (1983): “Antropología del trabajo” in Aguirre Baztan, A., *Diccionario temático de antropología*, Boixareu Universitaria, Bartzelona.
- Morgan, L. (1975): *La sociedad primitiva*, Ayuso, Madril.
- Palson, G. (1989): “The art of fishing”, *MAST* II (1), 1-20.
- Rubio Ardanaz, J. A. (1994): *Antropología marítima. Subdisciplina de la antropología socio-cultural*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Sánchez Fernández, J. O. (1993): “Antropología de la pesca” in Aguirre Baztan, A., *Diccionario temático de antropología*, Boixareu Universitaria, Bartzelona.
- Sauer, C. (1952): *Agricultural origins and dispersals*, American Geographical Society, New York.
- Schwimmer, E. (1980): “Los límites de la ideología económica: estudio antropológico comparativo sobre los conceptos de trabajo”, *R.I.C.S.* XXXII, 3, 569-584.
- Slanova M. et al. (1993): “El significado del trabajo: Una revisión de la literatura” in Peiró, J.M. et al. (1993): *Los jóvenes ante el primer empleo. El significado del trabajo y su medida*, U.I.P.O.T., Valentzia.
- Smith, E. (1977): *Those who live from the sea*, West Publishing, St. Paul.